



LEGUTIO

Irailaren 28ra arte

UDAKO POSTAL LEHIAKETA

(informazio guztia legutiano.net web orrian!!)



ZUIA

Abuztuak 25, 21:30ean Domaikian

PIZTIAREN EHIZA




Gasteizeko
jaietan...

MATXETETIK
TXOSNETARA!

Gasteizko andra mari zuria-
ren jaietan (abuztuaren 4tik
9ra) bi gunetan du euskarak
presentzia nabarmena:
Matxete plazan (eguneroko
bertso-saioa, euskarazko
kontzertuak (Mikel Urdan-
garin, Erramun Martikore-
na...), GEU elkartearen
txosna...) eta txosnetan
(kontzertuak (Zea Mays,
Mutürbeltz...), egitarau
zabala.... Beraz, jaietako
zurrumbiloi sartzeko asma
baldin badaukazue, apro-
betxatu eta egin bisita bieta-
ra. Ez zaizue damutuko...

UDAN, ANIMATU ETA IRAKURRI EUSKARAZ!



Koldo Zuazoren liburua da **Arabako euskara**. Izenburuak ez
du zalantzarako tarte gehiegirik uzten: Arabako euskarak izan
zituen ezaugarrik aztertu ditu liburuan, toponimia, azkenal-
dian azaldu diren lekukotasun idatziak, Arabako erdaran eus-
karak utzitako arrastoak eta beste hainbat iturri erabiliz. Az-
terlan zabal bezain zehatza da, eta interesa duenarentzako,
Gasteizi garrantzia berezia ematen diona.




Harkaitz Canoren azkeneko eleberriak, **Twist** izenekoak, hain-
bat hari ditu barruan: errua, maitasuna, traizioa, sexua, indarke-
ria, lotsa, justizia, erredentzioa, usurpazioa, antzezpena... Eta
gure iragan hurbileko hainbat kasu errearen aipamena ere bai,
fikzioan itxuraturik. Soto eta Zeberio bahitu, torturatu, hil eta
desagerrarazi egin zituzten: protagonista, Diego Lazkano idaz-
lea, haien oroimenean dabil igeri.



Ia hamarkada bat eman du Ramon Saizarbitoriak **Martutene**,
2012ko udaberrian ateratako eleberria, idazten. Hala ere, izan
duen harrerak eta eleberriak berez duen mailak hain itxaro-
naldi luzeak merezi izan duela adierazten digute. Bi narratzaile
ditugu nobelan zehar, tartekatuta (kapitulu bakoiti eta bikoitiet-
tan, zein baino zein), eta erdi-egustekoa den bisita batek bien
eta haien inguruko bizitzak ukituko ditu.

Bukatzeko, orain dela urte batzuk ateratako bat: Paul Auster-en
Brooklyngo erokeriak, Oskar Aranak euskaratua. Eleberri bizia
da, erritmo handikoa. Hiru hari nagusiri tiraka (Nathan, Tom eta
Harry; zein baino zein egoera aldrebesagoan bakoitza) New York-
eko Brooklyn auzoko bizimoduaren berri emango digu Auster-ek.



Klik!

ikea.com

Nork ez du ezagutuko
IKEA, altzariak erosi baditu
behintzat... Kontua da,
IKEAren web orrian bada-
goela laguntzaile pertxenta
bat (Anna), edozertan la-
guntzeko prest. Jende
gutxiak dakiena da, Annak
badakiela euskaraz... Pro-
batu nahi? Sartu, sartu!!

